



PRENTSARAKO OHARRA

18/12/27

Batzar Nagusietako Osokoak 2019rako Bizkaiko Aurrekontua onetsi dau Gernikan

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako batzarkideen aldeko 30 botoakaz, Talde Mistoko ordezkari bakarraren abstentzinoagaz eta EH Bilduko, Podemoseko eta Bizkaiko Talde Popularraren 17 batzarkideen kontrako botoakaz, Batzar Nagusietako Osokoak Lurralde Historikoko 2019ko Aurrekontu Orokorren Foru Araua onetsi dau gaur goizean. Eztabaidea hiru orduz luzatu da, eta ezuste barik bukatu da, Batzordean izandako eztabaidetan aurretik ikusi ziran joerei jagokenez.

Enplegua sortzea, ekonomia bizibarritzea, zerbitzu publikoei eustea eta txartoen dagozanenganako alkartasuna dira, Foru Gobernua eusten daben taldeen eretziz, aurkeztutako Aurrekontu proiektuaren lau oinarriak.

Jon Atutxa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroalearen eretziz, kontu horreek “orekatuak” dira. Horrez gain, bozeroale jeltzaleak barriro be bere ezezkoa erakutsi dau oposizino taldeek erreserbatutako zuzenketa-eskeak onesteko aukeraren aurrean, bere eretziz ez dagolako horretarako oinarriak, bere berbetan “ezinezko bilakatzen dituelako zerbitzuak eskaintzea eta Aldundiaren ohiko funtzionamentua” eta, ganera, “urte anitzeko konpromisoak apurtzea eskatzen dabelako”. Ganera, esan dauenez, bere taldeak, “bizkaitarren bizitza kalidadea hobetzeko” apustua egiten daben kontuak bultzatuko ditu.

Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak, bere aldetik, “onetsi behar doguzan kontuen bitartez konpondu gura doguzan arazo guztiak modu magikoan ez doguzala konponduko” autortu arren, kontu horreek “datorren urtean, egun honeetan, langabezia gitxiagori, kotizazino gehiagori, prekariedade gitxiagori eta bardintasun gehiagori buruz berba egin daigun konponbideak jarten dituela mahai ganean” defendidu dau. Bozeroale sozialistak, oposizinoaren zuzenketa-eskeei ezetz esateko jarrera azaltzeko orduan, “aurrekontuak koadrau egin behar dira eta, beste barik, uste dogu Bizkaiko herritarrentzako hobea dala guk planteetan dogun baliabideen antolamendua zuok planteetan dozuena baino” esan dau.

Igaz gertau zan moduan, Talde Mistoa abstenidu egin da bozketan. Zuzenketa-eske transakzionalen bitartez aldaketa gehien aurrera atara dituan taldea izan arren, Arturo Aldecoa barriro defendidu ditu, beste gai batzuen artean, eskolako kirolaren, Urdaibai Bird Centerraren, foru basoak eskuratzearren, bertako animaliak eta landarak bultzatzearen eta gizarteratze zentroen sustapenaren aldeko apustua egiten daben berrogeita hamar zuzenketa-eske inguruak. “Onartu ez diran arren, apurka-apurka ikusten joan beharko diran gauzak dirala dinon musikeagaz geratzea gurako neuke”, adierazo dau.

Javier Ruiz Talde Popularraren bozeroaleak kritikau egin dau Gobernu “hermetiko, isolatu eta endogamikoak” “bere joskurak zabaltzeko” erakutsi dauen gaitasun faltea. Javier Ruizek kontuetan zeharkako politikei, adinekoei, autoenplegurako politikei eta

enplegarritasun planei emoten jaken laguntza urria be salatu dau. Harmailatik, Ruizek, Bizkaia “iraunkorrangoaren”, “konpentsauaren”, “sentsibilitate handiagokoaren”, “hobeto egituratutakoaren”, “indartsuagoaren”, “bere nortasuna daukanaren” eta “herriar guztientzako aukera bardintasuna bermatuko dauanaren” aldeko apustua egiten daben zuzenketa-eskeak defendidu ditu.

Neskutz Rodriguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak gizartearen errebindikazioak eta eskariak ez entzutea leporatu deutse Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeei, “zuei ez jatzuelako ondo etorten, egungo sistema askoz hobeto egokitzen dalako zuen edo zuen ingurunearen, goi mailakoen, beharretara”. EH Bilduk eta Talde Popularrak egin daben moduan, Rodriguezek 200 zuzenketa-eske inguru ekarri ditu osokora, bere ustez “gizarte eredu zuzenera, jasangarrira, feministara eta solidariora emon beharreko trantsizionarako lehenengo pausua emoten” laguntzen daben zuzenketa-eskeak, hain zuzen be.

Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, bere aldetik, foru gobernua osatzen daben taldeek “oposizionetik egindako ekarpenak jasoteko erakutsi daben borondate faltea” kritikau dau. Aurreko saioetan daborduko adierazotakoagaz jarraituz, Urkaregik gaur onetsi diran kontuen lehentasuna azpiegitura handiak dirala kritikau dau, eta ez behar gehien daukien personak, bardintasan politikak eta eskualdeen garapena. Bere eretxiz, 2019ko kontuak “ez dira bizkaitar guztiontzako aurrekontuak, gitxi batzuei begira dagozan eta bizkaitar askoren beharrak bazterrean izten dituen aurrekontuak baino”.

FORU ARAUAREN IBILPIDEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernuak 8.216,7 milioi euroko kopuru osoa eukan aurreproiektua aurkeztu eban joan dan urriaren 31n, bukatzen ari dan urte honetako aurrekontua baino %5,2 gehiago (403,5 milioi euro). Kontuan izanda 6.573,05 milioi beste administrazio batzuekaz (Eusko Jaurlaritza, Udalak eta Estaduko administrazioa, kupoaren bitartez) konprometidutakoak dirala, Bizkaiko Foru Aldundiak 1.643,66 milioi euro kudeauko leukez zuzenean, eta horreetatik 1.253,3 milioi Aldundiko zortzi sailek erabili daikiena da (2018an baino %4,9 gehiago), Aldundiko beharginen gastu finkoei zuzendutako atala kendu eta gero.

Joan dan abenduaren 12an, Batzar Nagusietako Osokoak ez ebazan onetsi EH Bilduk, Podemosek eta Talde Popularrak aurkeztutako osotasunezko hiru zuzenketa-eske. Hori dala eta, hainbat taldek aurkeztutako 676 zuzenketa-eske parzialak eztabaidatu ziran: 241 Podemos taldeak, 215 EH Bilduk, 137 Talde Popularrak eta 75 Talde Mistoak. Horrez gain, Foru Gobernuaren beharra eusten daben talde biek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, zortzi proposamen aurkeztu ebezan.

Abenduaren 17tik 20ra, Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasun Batzordeak, Bizkaiko Foru Aldundiaren zortzi sailetako baxotxaren aurreikuspen ekonomikoan aurkeztutako zuzenketa-eske parzial guztiak aurkeztu ziran. Horreetatik hirutan (Iraunkortasun eta Baliabide Natural saila, Herri Administrazio eta Erakunde Harreman saila eta Gizarteratze eta Bardintasan saila), haserako proposamenagaz jarraitu zan, eta beste bostetan (Gizarte Ekintza Saila, Euskera eta Kultura saila, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino saila, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen saila eta Enplegu,

Gizarteratze eta Berdintasun saila), aurrekontuen aurreikuspenaren alderdiren bat aldatzen eben 13 zuzenketa-eske onetsi ziran.

Legealdi honen hasieratik Aldundiko Gobernuari eusten deusan Euzko Abertzaleak taldearen 23 jarlekuetan eta Euskal Sozialistak taldearen zazpietan oinarritzen dan gehiengoaren babesagaz, Batzar Nagusiek batzordeko eztabaidatik urten eban moduan berretsi dau aurrekontuen proiektua.

Aurrekontuen aurreko eztabaidan gertatu zan moduan, Talde Mistoaren ordezkari bakarra abstenidu egin da bozketan, eta EH Bilduko 11 ordezkariak, Podemos Bizkaiako seiak eta Talde Popularreko hiruek proposamenaren kontrako botoa emon dabe. Bizkaiko Lurralde historikoko Aurrekontu Orokor Proiektuaren onespina, emaitza berbera euki daben bederlatzi bozketatan zehaztu da (aldeko 30, kontrako 17 eta abstentzino bat). Bozketa horreek, Aldundiko zortzi sailtako bakoxtaren kontuari eta Artikuluen Testuari buruzkoak izan dira.

BIZKAIKO LURRALDEAREN AURREKONTUAK 2019RAKO

Batzar Nagusietako Osokoan Bizkaiko kontuak onetsi eta gero, eta orain hilebete bi aurkeztu zan moduan, Bizkaiko Foru Aldundiko zortzi sailen aurrekontua (beharginei jagoken atala kanpo itzita), holan geratzen da:

- **Gizarte Ekintza Saila:** 537,76 milioi euro (2018an baino 43,16 milioi gehiago, +%8,7)
- **Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Saila:** 283.560.900 euro (2018an baino 14,53 milioi gehiago, +%5,4)
- **Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Saila:** 139.984.916 euro (2018an baino 5,98 milioi gehiago, +%4,5)
- **Ogasun eta Finantza Saila:** 51.493.433 euro (2018an baino 2,83 milioi gutxiago, -%5,2)
- **Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Saila:** 75.910.000 euro (2018an baino 13,199 milioi gutxiago, -%14,8)
- **Herri Administrazio eta Erakunde Harreman Saila:** 62.112.967 euro (2018an baino 5,65 milioi gehiago, +%10)
- **Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Saila:** 54.770.000 euro (2018an baino 3,04 milioi gehiago, +%5,9)

- **Euskera eta Kultura Saila:** 47.686.274 euro (2018an baino 2,24 milioi gehiago, +%4,9)

NOTA DE PRENSA

27/12/18

El Pleno de las Juntas Generales aprueba en Gernika el Presupuesto de Bizkaia para 2019

Con los 30 votos a favor correspondientes a los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la abstención del único representante del Grupo Mixto y la oposición de los 17 apoderados y apoderadas de EH Bildu, Podemos y Grupo Popular Vizcaíno, el Pleno de las Juntas Generales ha aprobado esta mañana la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico para 2019. El debate se ha prolongado a lo largo de tres horas, y ha concluido sin sorpresas respecto a los posicionamientos previamente establecidos en los debates en Comisión.

La creación de empleo, la reactivación económica, el sostenimiento de los servicios públicos y la solidaridad con quienes peor lo están pasando son, a juicio de los grupos que sustentan el Gobierno Foral, los cuatro pilares que amparan el proyecto de Presupuesto presentado.

El portavoz del grupo de Nacionalistas Vascos, Jon Atutxa, ha definido estas cuentas como “equilibradas”. Asimismo, el portavoz nacionalista ha vuelto a expresar su negativa de aprobar las enmiendas reservadas por los grupos de la oposición al considerarlas carentes de base justificativa, y al considerar que “hacen inviables la prestación de servicios y el normal funcionamiento de la Diputación” y que “suponen la ruptura de compromisos plurianuales”. Además ha afirmado que su grupo apoyará unas cuentas que apuestan por “mejorar la calidad de vida de vizcaínos y vizcaínas”.

Por su parte, el portavoz del grupo de Socialistas Vascos, Ekain Rico, a pesar de reconocer que “con las cuentas que aprobamos no vamos a solucionar mágicamente todos esos problemas a los que pretenden hacer frente”, ha defendido que éstas “ponen soluciones encima de la mesa para que el año que viene, por estas fechas, hablemos de menos paro, más cotizaciones, menos precariedad y más igualdad”. El portavoz socialista ha argumentado su negativa a las enmiendas de la oposición recordando que “el presupuesto debe cuadrar y, sencillamente, creemos mejor para la ciudadanía de Bizkaia la ordenación de recursos que planteamos nosotros, a la que plantean ustedes”.

Al igual que sucedió el pasado año, el portavoz del Grupo Mixto se ha abstenido en la votación. A pesar de ser el grupo que más modificaciones ha logrado sacar adelante a través de enmiendas transaccionales, su portavoz Arturo Aldecoa ha vuelto a defender más de medio centenar de enmiendas que apuestan, entre otras cuestiones, por el deporte escolar, el Urdaibai Bird Center, la adquisición de montes forales, la repoblación de la fauna y flora autóctonas y el impulso de centros de inserción social. “Aunque no las han aprobado, espero que se queden con la música de que son cosas que hay que ir viendo”, ha manifestado.

El portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, ha criticado incapacidad de un Gobierno “hermético, aislado y endogámico” para “ensanchar sus propias costuras”. Javier Ruiz ha puesto el acento en el escaso apoyo de las cuentas a las políticas transversales, a las

personas mayores, políticas de autoempleo, y planes de empleabilidad. Desde la tribuna, Ruiz ha defendido unas enmiendas que apuesta por una Bizkaia “más sostenible”, “más compensada”, “con mayor sensibilidad”, “que esté mejor vertebrada”, “que sea más pujante”, “que tenga su propia identidad” y en el que “esté garantizada la igualdad de oportunidades para el conjunto de la ciudadanía”.

La portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodriguez, ha acusado a los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos de desoír las reivindicaciones y demandas de la sociedad, “porque a ustedes no les vienen bien, porque el sistema actual se adapta mucho mejor a las necesidades de ustedes, o las de su entorno, los de la élite”. Al igual que EH Bildu y Grupo Popular, Rodriguez ha traído a pleno alrededor de 200 enmiendas que, bajo su punto de vista, “ayudan a dar un primer paso para una transición hacia un modelo de sociedad justo, sostenible, feminista y solidario”.

Por su parte la portavoz de EH Bildu, Arantza Urkaregi, ha criticado la “poca voluntad de acuerdo para recoger aportaciones realizadas desde la oposición” por parte de los grupos que forman el gobierno foral. Siguiendo con lo ya expresado en debates anteriores, Urkaregi ha criticado que las cuentas hoy aprobadas sitúan como prioridad las grandes infraestructuras, y no las personas necesitadas, las políticas de igualdad y el desarrollo comarcal. En su opinión las cuentas para 2019 “no son presupuestos para todas las personas de Bizkaia, sino más bien unos presupuestos que miran por unos pocos, y que desechan las necesidades de muchos vizcaínos y vizcaínas”.

TRAYECTORIA DE LA NORMA FORAL

El Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia presentó el pasado 31 de octubre un anteproyecto que contemplaba un montante total de 8.216,7 millones de euros, un 5,2% más (403,5 millones de euros) de lo presupuestado en el año que concluye. Teniendo en cuenta que 6.573,05 millones corresponden a los comprometidos con otras administraciones (Gobierno Vasco, ayuntamientos y Administración del Estado a través del cupo), el ente foral vizcaíno gestionaría directamente 1.643,66 millones de euros, de los que 1.253,27 (el 4,9% más que en 2018) quedarían a disposición de los ocho departamentos de la Diputación, una vez descontado el capítulo destinado a los gastos fijos del personal adscrito al ente foral.

El pasado 12 de diciembre, el Pleno de las Juntas Generales rechazó tres enmiendas a la totalidad del proyecto de presupuestos presentadas por EH Bildu Podemos y Grupo Popular, dándose paso a la discusión en comisión de las 676 enmiendas parciales presentadas por los diversos grupos: 241 por Podemos, 215 por EH Bildu, 137 por el Grupo Popular y 75 por el Grupo Mixto, además de las ocho propuestas por las dos formaciones que sustentan la labor del Gobierno foral, los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

Entre el 17 y el 20 de diciembre, la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales debatió todas las enmiendas parciales presentadas en la previsión económica para cada uno de los ocho departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia. En tres de ellos (Sostenibilidad y Medio Natural, Administración Pública y Relaciones Institucionales, y Hacienda y Finanzas) se mantuvo la propuesta inicial, mientras que otros cinco (Acción Social, Euskera y Cultura, Transportes, Movilidad y Cohesión del

Territorio, Desarrollo Económico y Territorial, y Empleo, Inclusión Social e Igualdad) aprobaron un total de 13 enmiendas que modificaban algún aspecto del presupuesto.

Algunas de las enmiendas parciales debatidas durante estos días son fruto de las alegaciones ciudadanas presentadas al presupuesto de la Diputación para el ejercicio 2019 a través de los cauces habilitados por las Juntas Generales de Bizkaia. Concretamente este año, entre las trece modificaciones aprobadas destaca el aumento de la partida designada a la Fundación Síndrome Down País Vasco y la creación de una dotación dirigida a la Fundación Museo Minería País Vasco.

Con el apoyo de una mayoría sustentada en los 23 escaños del grupo Nacionalistas Vascos y los siete de Socialistas Vascos, que mantiene el Gobierno de la Diputación desde el comienzo de la presente legislatura, las Juntas Generales han ratificado el proyecto presupuestario tal como salió del debate en comisión.

Al igual que sucedió en el anterior debate presupuestario, el único representante del Grupo Mixto se ha abstenido en la votación, mientras que el sufragio ha sido en contra de la propuesta en el caso de los 11 representantes de EH Bildu, los seis de Podemos Bizkaia y los tres del Grupo Popular. La aprobación del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio de Bizkaia se ha concretado en nueve votaciones de idéntico resultado (30 a favor, 17 en contra y una abstención), referidas a las cuentas de cada uno de los ocho departamentos de la Diputación y al Texto Articulado.

PRESUPUESTOS DEL TERRITORIO DE BIZKAIA PARA 2019

Tras la aprobación de las cuentas de Bizkaia en el Pleno de las Juntas Generales y tal y como fue presentado hace dos meses, el presupuesto asignado a los ocho departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia (excluyendo el capítulo relativo al personal) queda distribuido de esta forma:

- **Departamento de Acción Social:** 537,76 millones de euros (43,16 millones más que en 2018, +8,7%)
- **Departamento de Desarrollo Económico y Territorial:** 283.560.900 euros (14,53 millones más que en 2018, +5,4%)
- **Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio:** 139.984.916 euros (5,98 millones más que en 2018, +4,5%)
- **Departamento de Hacienda y Finanzas:** 51.493.433 euros (2,83 millones menos que en 2018, -5,2%)
- **Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural:** 75.910.000 euros (13,199 millones menos que en 2018, -14,8%)

- **Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales:** 62.112.967 euros (5,65 millones más que en 2018, +10%)
- **Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad:** 54.770.000 euros (3,04 millones más que en 2018, +5,9%)
- **Departamento de Euskera y Cultura:** 47.686.274 euros (2,24 millones más que en 2018, +4,9%)